

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN  
APARTEKO BILERA**

**2012ko urriaren 23a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabigarren urteko urriaren hogeita hiruan, asteartea, arratsaldeko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, aparteko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Ainara Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote, Jose E. del Río Echeverria, José Luis Echegaray Andueza, José Esteban Echeveste Apezteguía, Victoriano Ruiz Álvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Izaro Mitxelena Rekondo eta Pedro Apezteguía Alzugaray zinegotzi jaun-andreak ez dira agertu; ez etorri izana justifikatuta.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BILKURARI DAGOKION  
AKTAREN ONESPENA.**

Osoko bilkurak aho batez azken bilkuraren akta onartu du, 2012ko urriaren 5koa.

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO  
DEL AYUNTAMIENTO**

**23 de octubre de 2012**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del martes veintitrés de octubre del año dos mil doce, se reúne, en sesión extraordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, doña Ainara Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote, don José E. del Río Echeverria, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.


No acuden, habiendo excusado su inasistencia, los concejales doña Izaro Mitxelena Rekondo y don Pedro Apezteguía Alzugaray.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACIÓN DEL ACTA  
CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA  
SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 5 de octubre de



2012.

## 2 - 2013RAKO HIRI- ETA LANDA-KONTRIBUZIOA.

Kontuan hartuta Nafarroako Kontsumo-Prezioen Indizea aitzineko urtean %2,6 goititu zela eta katastroa eguneratu gabe dagoela, Ogasun-Batzordeak proposatu du kontribuzioak %4an igotzea 2013ko ekitaldirako.

Bertze alde batetik, Udala prozedura tramitatzen ari da katastro berriaren balioespen txostena onesteko, baina oraindik ezin da jakin ea heldu den urterako indarrean sartuko den. Horregatik, komenigarria da indarrean dagoen katastroari dagokion eguneratzea onartzea, hau erabiltzeko baldin eta bertzea 2013ko ilbeltzaren lerako ez bada ezarrita.

Hori dena aintzat hartuta, Udalbatzak, kide guzien aho bateko botoarekin, honako akordio hauek hartu ditu:

1.) Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioaren zerga-tasa %0,4426koa, 2013. urtean, % 0,4603 izanen da.

2.) Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa egungo %0,4037tik %0,4198ra pasatuko da 2013an.

3.) Zerga-tasa horiek 30 egunez jendaurrean ikusgai paratzea, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarkitaulan iragarrita, herritarrek eta legezko

## 2 - CONTRIBUCIÓN URBANA Y RÚSTICA PARA EL AÑO 2013

Teniendo en cuenta que el Índice de Precios al Consumo se elevó en Navarra un 2,6% durante el año anterior y que el catastro se halla sin actualizar, la Comisión de Hacienda propone que se incrementen las contribuciones en un 4 % para el ejercicio de 2013.

Por otra parte, el Ayuntamiento está tramitando el procedimiento para aprobar la ponencia de valoración del nuevo catastro, pero no es posible determinar aún si el mismo estará en vigor para el próximo ejercicio. Por ello conviene aprobar una actualización correspondiente al catastro vigente, para aplicarla en el caso de que no se haya implantado el otro para el 1 de enero de 2013.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, adopta los siguientes acuerdos:

1º) El tipo impositivo de la Contribución Urbana, que durante el presente ejercicio es del 0,4426 %, se incrementará para el año 2013 hasta el 0,4603 %.

2º) La Contribución Rústica se elevará del actual 0,4037 % al 0,4198 % para el próximo año 2013.

3º) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los

interesdunek espedienteaz aztertu ahal dezaten.

4.) Aitzineko puntuak aipatu den epean erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez bada, zerga-tasa horiek behin betiko onartutzat emanen dira. Kasu horretan, lege-ondorioak izan ditzan, egoera hori, behin betiko testuarekin batean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

### 3 - 2013RAKO ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA.

Joan den 2011. urtean, Nafarroan, Kontsumo-Prezioen Indizea % 2,6 handitu zen. Bertze alde batetik, tarifa batzuen zenbatekoak ez dira orain dela zenbait urte aldatu. Beraz, komenigarria da udal-tasen tarifak eta zenbait zerga eguneratzea, Udalak dirua biltzeko gaitasunari euts diezaion.

Espedientearen ageri da zein zerga aldatuko diren eta 2013ko ekitaldirako zerga horietarako zein zenbateko proposatzen diren.

Halaber, idazkariak urriaren 17an egindako informea agertzen da.

Hori aintzat hartuta, Udalbatzak, aho batez — bere kideen legezkopuruaren gehiengo absolutua baita —, honako hau adostu du:

1 - Hasiera batez onartzea Ordenantza Fiskalen aldaketa 2013 urterako, espedientearen agerimen moduan.

2 - Erabaki hau jendaurrean ikusgai jartzea

vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

4º) Si no hubiera reclamaciones, reparos u observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

### 3 - APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2013

Durante el pasado año 2011 el Índice de Precios al Consumo se incrementó en Navarra el 2,6%. Por otra parte, hay algunas tarifas cuyos importes no se han modificado desde hace varios ejercicios. En consecuencia, conviene actualizar las tarifas de las tasas municipales, así como determinados tributos, a fin de que el Ayuntamiento mantenga su capacidad recaudatoria.

Obra en el expediente la relación de los tributos a modificar, con los importes que se proponen para el próximo ejercicio de 2013.

Consta, asimismo, el informe emitido por el secretario con fecha 17 de octubre.

Ante ello la Corporación, por unanimidad — lo que representa la mayoría absoluta del número legal de miembros de la misma — acuerda:

1º) Aprobar inicialmente la modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2013, en la forma en que consta en el expediente.

2º) Que se someta el presente acuerdo a

Handwritten signatures and stamps at the bottom of the page. There are several large, stylized signatures in black ink. In the center, there is a circular stamp with the number '3' inside. To the right, there is another signature that appears to be 'A. Fra'.

hogeita hamar egunez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean ediktuak paratu ondotik, herritarrek edo legezko interesdunek espedienteaz aztertu, eta erreklamazio, eragozpen edota oharra aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik ez balego, ordenantzen aldaketa behin betiko onartua geldituko da.

#### 4 – AINTZINEKO BILERAN EGINIKO GALDEREI ERANTZUNA.

2012ko urriaren 5ean egin zen azkeneko bilkuraren 7. puntuan, Jose Luis Echegaray Andueza jaunak hainbat galdera egin zituen Daka Quads S.L., Juan Ignacio Irigoyen García jaunak (Txarandaka) ordezkatzeko duen enpresa, Alkaiaga auzoan dagoen lur-eremu batean (katastroko 1 poligonoko 179 partzelan) egiten ari den eraikinari buruzkoak.

Haiei erantzuteko, alkate jaunak zera dio: "Agindua eman zaio Txarandakari geldiarazteko. Hori baino lehenago bere arkitektoari kontsulta egin zitzaion, ea egiten ari zen lanak proiektuan aurkeztutakoak ziren galdetzeko, eta honek erantzun zuen, obrako kostuak murrizteagatik, modu merkeago batean egiten ari dela. Guk ikusita modu hori ez dela Udalak onartutakoa, obra geldiarazteko agindu zaio eta Nasuvinsari informe detailatu bat egiteko. Behin informe hori dugunean, ikusiko dugu, aintzineraz begira zer pauso eman".

Jose Luis Echegaray jaunak solas egin du:

información pública durante treinta días, previa inserción de edictos en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.

En caso de que no se formularen, la modificación de ordenanzas se entenderá definitivamente aprobada.

#### 4 – RESPUESTA A LAS PREGUNTAS FORMULADAS EN LA SESIÓN ANTERIOR.

En el punto 7 de la última sesión, celebrada el día 5 de octubre de 2012, don José Luis Echegaray Andueza formuló varias preguntas relativas a la construcción que está realizando Daka Quads S.L., empresa representada por don Juan Ignacio Irigoyen García (Txarandaka), en una finca situada en el barrio de Alkaiaga (parcela 179 del polígono 1 del catastro).

En respuesta a las mismas, el señor alcalde indica lo siguiente: "Se le ha ordenado a Txarandaka que la pare. Antes de hacer eso, se le hizo una consulta a su arquitecto, para preguntarle si las labores que estaban haciendo eran las presentadas en el proyecto y este contestó que, por reducir el coste de las obras, las está haciendo de una forma más económica. Nosotros, a la vista de que esa forma no es la autorizada por el Ayuntamiento, se le ha ordenado que paralice la obra y a Nasuvinsa que haga un informe detallado. Una vez que tengamos ese informe veremos que pasos dar en el futuro".

Toma la palabra don José Luis Echegaray:

“Guk ez dugu sinesten Lekuona jaunaren txostenak diona, eta gainera iruditzen zaigu, bertze behin, udal honetako zinegotziak engainatu naahi dituela. Ez du inolako dokumenturik ezta azterketarik aurkezten egiaztatuko duenik merkeagoa dela eraikin bat hormigoizko blokerekin egitea, modulu prefabrikaturekin egitea baino. Beraz, teknikari horri eskatuko genioke zorrotzagoa izatea bere erantzunetan; izan ere iruditzen zaigu bera zuzendaria dela erraten duen obran bere kontrol faltarengatik sortu den arazoa, ez baita bat heldu emaniko baimenarekin, eta berak, obraren arduradun nagusia den heinean, ez duela deus ere egin hura geldiarazteko, eta ondorioz arazo larria sortu duela bai udalbatzaren barruan, bai Lesakako Plan Orokorreko 26. Exekuzio Unitateko jabeen artean.

Bigarrenik, ez dugu zoriondu behar ez alkatea ezta bere hirigintzako zinegotzia ere obra hau geldiarazteko erabakia hartzeagatik. Lehendabiziko egunetik gertatuko zenaz ohartarazi genion – eta bada honetatik urte bat baino gehiago-, ezagututa Lesakako 1 poligonoko 171 partzelaren aurrekariak eta jabearen jarduteko modua. Honek garamatza, gainera, berrito ere egoera korapilatsuan egotera, lur-eremu horren jabeak eta Udal honetako gehiengoak duen taldeak sortu dutena, mota honetako egoeratan eta zehazki leku honetan, eskarmentu handia duten pertsonak ematen ahal zizkioten aholkuak erabat alde batera utzita eta Osoko Bilkura honen erabaki bati eta partzela honetan jardutea debekatzen. zuen erabaki judizial bati jaramonik egin gabe, utzi egin baita oraintxe arte sustatzaileak gastu garrantzitsuak egitea, baina azkenean ikusiko

“No nos creemos el informe del señor Lekuona y además creemos que pretende, una vez más, engañar a los corporativos de este Ayuntamiento. No presenta ningún documento ni estudio que acredite que sea más económica la construcción de un inmueble con bloques de hormigón que con módulos prefabricados. Por lo tanto, exigiríamos a este técnico más rigor en sus respuestas, ya que consideramos que el problema creado por su falta de control en la obra de la que dice ser el director, no se corresponde a la licencia otorgada y él, como responsable máximo de la misma, nada ha hecho por paralizar la misma, creando un serio conflicto tanto dentro de la corporación municipal, como entre los propietarios de la Unidad de Ejecución 26 del Plan General de Lesaka.

En segundo lugar no vamos a felicitar ni al alcalde ni a su concejal de urbanismo por haber tomado la decisión de paralizar esta obra. Ya le habíamos advertido desde el primer día –y de esto hace más de un año- lo que iba a ocurrir, conociendo los antecedentes de la parcela 171 del polígono 1 de Lesaka y las formas de actuar de su propietario. Esto nos lleva además a encontrarnos de nuevo en una situación delicada, creada por el propietario de dicho terreno y el grupo que ostenta la mayoría en este Ayuntamiento que, dejando completamente de lado todos los consejos que podían dársele por parte de personas con gran experiencia en este tipo de situaciones y concretamente en este lugar y saltándose un acuerdo de este Pleno y una decisión judicial que prohibía seguir actuando en esta parcela, ha permitido que se hagan gastos

X

duguna ea nork ordaintzen duen. Akabatzeko, importantes por parte del promotor hasta este momento, pero que finalmente veremos quien los hartzeko garaia".

bakarrrik erran bazela erabaki epela baina justua paga. Para terminar, solamente decir que ya era hora de que se tomara una decisión tibia pero justa".

Aipaturiko egunaren ilunabarreko zortziak Siendo las veinte horas y quince minutos del eta hamabortz minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten ello yo, como secretario, certifico.

dut.

o

